

GREZIAKO EGUNSENTI URREKARA ALDERDI NEONAZIA, DESEGITE BIDEAN

Parlamentuan hirugarren indarra izatetik ordezkariarik ez izatera pasa da alderdi neonazia azken hauteskundeetan, eta makroepaiketa batek antolakunde kriminala dela frogatu nahi du. Alderdiaren gainbehera, baina, ez dator soilik hauteskunde porrotetik: neonazien indar galeran oinarritzeko izan da mugimendu antifaxistaren borroka.

AMAIA LEKUNBERRI ANSOLA

Sortzetik hiru hamarkadara lortu zuen indar politikoko bilakatzea Greziako Egunsenti Urrekara alderdiak, 2012ko hauteskundeetan parlamentuko hirugarren indarra izatera iritsi zenean. Zazpi urteren ostean, alderdia gainbeheran da: uztaileko hauteskundeetan ez du ordezkariarik lortu. Eurodiputatu bakarra lortu zuten, Yanis Lagos, eta honek baja eman zuen alderdian, beste bat sortu asmoz. Bide bera jarraituz, asko dira alderditik ospa egin duten alderdikide ohiak.

Alderdikideen ihesa ez da gainbeheraren adierazle bakarra. Parlamentuko atean geratu izanak diru ofizialaren iturri gabe utzi du alderdia, eta horrek egoitzak ixtera derrigortu ditu. Sinbolikoa izan da, adibidez, Atenasko Mesogeion etorbidean zeukaten egoitza nagusiari giltzarrapoa jarri izana. Horrez gain, eraso zibernetiko batek alderdiaren webgunea funtzionamenduz kanpo utzi zuen, eta horrela datza ordutik.

Faktore horiei batu behar zaie 2015etik martxan den alderdiaren kontrako makroepaiketa, zeinaren bidez frogatu nahi den Egunsenti Urrekara alderdi politikoa bat izatetik urrutu, antolakunde neonazi paramilitarra dela. Lau urtez luzatu ostean, baliteke hilabete gutxiren bueltan alderdia antolakunde kriminaltzat jotzea.

ORAIN 6 URTE HASITAKO GAINBEHERA

Publicon argitaratutako artikuluan, Emma Pons Valls kazetariak 2013ko irailaren 18an jazotako gertakaria jo du gainbeheraren abiapuntu. Irailaren 17tik 18rako goizaldean 'Killah P' ezizenez ezaguna zen Pavlos Fyssas rap abeslari antifaxista hil zuen labankadaz alderdiko kide Yorgos Rupakiás-ek, kupulatik jasotako aginduak jarraituz. Fyssasen familiak epaiketan aurkeztutako frogen arabera, Yanis Lagos izan zen hilketa agindu zuena. Rapeatzailea ez zen izan alderdi neonaziaren lehen biktima mortala, hilabete batzuk lehenago Shehzad Luqman migratzaile pakistandarra hil baitzuten Atenasen. Fyssasen kasuan, baina, erasotzailea segidan atxilotu zuten, eta Ponsen hitzetan "ez Egunsenti Urrekarak ez poliziak ezin izan zuten kasua ezkutatu". Jakina baita poliziak askotan kolaboratu duela alderdi neonaziarekin.

Fyssasen hilketa jazo eta egun gutxira, alderdiko kupula eta diputatu guztiak atxilotu zituzten, hauen aurkako bide judiziala abiatuz. Atzerapenak tarteko, 2015eko apirilaren 20an hasiera eman zitzaion oraindik martxan den makroepaiketari. Hainbat kasu barnebiltzen ditu epaiketak, eta 68 auzipetuei leporatzen zaie hil izana, antolakunde kriminalako kide izatea, eta arma eta droga ilegalak edukitzea, besteak beste.

BORROKA ANTIFAXISTAREN GARAIPENA

Egunsenti Urrekaren gainbehera hauteskunde porrotetik harago doala azaldu du Hibai Arbide Aza kazetariak *El Salton*. Alderdia izatetik urrutu, SA hitleriarren itxurara sortutako antolakunde paramilitar neonazia dela azaldu du, eta indarkeriaren erabilera instrumentala eta sistematikoa egin dutela. Beren erasoek jo puntuan jarri dituzte hainbat kolektibo. Arbideren hitzetan, alderdiaren eragina parlamentutik harago nabarmen zabaldu den era berean, "porrotaren arrazoiak ere hauteskunde logikatik harago bilatu behar dira". Kazetariaren aburuz, hauteskundeetako porrotak eragindako funts ekonomikoaren galera azken kolpea izan

bada ere, alderdia erortzear zen mugimendu antifaxistak egindako lanari esker.

Greziako mugimendu antifaxistaren ildo estrategikoak lau izan direla azaldu du, denak elkarrekin jarraitukoak: mobilizazio jendetsuak, plataforma irekiak, jazarpen judiziala eta kaleko konfrontazioa.

Mobilizazio jendetsuetan indar erakustaldiak egin dituzte, "baina mugimenduaren iritzitan beren indarra ez datza soilik ekintza jendetsu eta ikusgarrietan". Auzoz auzo antolatzen diren koordinadora antifaxistak dituzte, eta helburu bati jarraiki jarduten du bakoitza bere eremuan: egunerokoan, faxistei tokirik ez dutela adieraztea. "Soilik 2017 eta 2018 urteen artean, presio etengabeko honekin lortu zen alderdiak Atenasko eremu metropolitarran zituena 32 egoitza ixtea", dio Arbidek.

Kaleko presentziarekin espazioen defentsa beren esku izatea ere bilatu dute, egitekoa sarri neonaziekin kolaboratu duen poliziaren esku utzi gabe. Defentsa horretan aurreko konfrontazioak izan dituzte neonaziekin. Arbidek adibide gisa jarri du Agios Panteleimonas plazako kasua: Egunsenti Urrekarak bertan egiten zituen "soilik greziarrentzako" janari banaketak, greziar odol donazioak eta haur-parkeen itxierak, soilik Greziako haurrek jolastu zezaten bertan; antifaxistek, eremua berreskuratzeko, Distomo zentro soziala okupatu zuten bertan. Espazio hori lortzeko bidea ez zen xamurra izan: "Borrokak jazo ziren, enfrentamenduak faxista eta polizien aurka, komisaldegietan Egunsenti Urrekarako kide gisa identifikatzen ziren poliziek antifaxistak torturatu zituzten", dio Arbidek.

Bestetik, bide judizialean, abokatu talde bat aritu da alderdiko buruak auzitara eramaten. Arbidek zehaztu du abokatu horiek akusazio gisa jardun dutela gerora Egunsenti Urrekaren aurkako epaiketetan, bereziki aipatutako makroepaiketan. Hilabete gutxiren buruan heldu daiteke amaierara auzibidea, eta baliteke epaiak espetxe zigorgorrrak eskatzea alderdiko kupulako kideentzat. ●

